

AUTOBUSEZ

Maite idazle mungiarren kronikak Euskal Herrietatik¹

Atarikoak: *Beribilez*

Jean Etxepare Aldudeko mediku eta idazle kartsuak, *Beribilez* bere liburu gogoangarrian², Euskal Herrian barrena autotz egindako txangoa kontatu zigun, maisuki kontatu ere. Zazpi lagun abiatu ziren Kanbo herritik, auto bitan, 1928ko abuztuaren hasieran, eta, egun berean, buelta ederra egin zuten zinez; izan ere, orduko autoen mekanika kontuan harturik, Kanbo-Garazi-Iruña-Tolosa-Loiola-Donostia-Donibane Lohizune-Kanbo itzulia ez zen txantxetakoa izango. Egileek eurek ere onartzen dute hori liburuaren amaieran: “itzuli ederra, egungoa: 357 kilometra inguratu ditugu, bat gutiago ez”.

“Euzkadi osterea”, 1933

Bost urte geroago, 1933ko udaberrian, apirilaren 29an, Bilboko Euzko Gazteriak antolatutako txangoan, 303 euskaltzale

¹ *Euzkadi* (1913-02-01/1937-06-18) eta *Eguna* (1937-01-01/1937-06-13) egunkariak bizitza oso ibilbide desberdina izan zuten; biak baina, gerra ankerrak desagertarazi zituen orain dela 80 urte. Bietan, idatzi izan zuen Julia Gabilondo *Maite* mungiarra gogoratzeko eta omentzeko, une egokia dake 2017ko udazken hau, zeinetan *Karmel* aldizkaria bere 300. zenbakira heldu den.

² Etxepare, Jean: *Beribilez*, Lasserre, Baiona, 1931.

abiatu ziren Bidebarrieta kaletik, hamar autobusetan³ –*tarrantak*, orduko euskara garbizalean–, lau eguneko itzuli bat egiteko Euskal Herriko zazpi herrialdeetan barrena. Lourdes herriraino ere heldu ziren, eta bertan igaro zuten hiru gauetariko bat.



Itzuliaren gaineko informazioa Euzko astekarian⁴

Euskaltzale multzo horretan, Julia Gabilondo izeneko neska mungiar bat doa, orduko euskal prentsan bere artikuluak sinatzeko *Maite* ezizena erabiltzen zuena. Bidaia 1933ko apirilaren 29tik maiatzaren 2ra luzatu zen, eta Maitek maiatzaren 6an sinatzen du bere lehenengo kronika, baina hilaren 11n argitaratu zen. Seigarren eta azkena, aldiz, maiatzaren 31n argitaratu zuen *Euzkadi* egunkariak. Kronikotan, Maiteren asmoa ez da paisaiaren edertasuna deskribatzea, edota saio literario

³ Bizkaiko Otxandio herrian autobus bat gehiago batu zitzaizen, Durango eta Ondarroa aldeko abertzaleak zekartzana.

⁴ *Euzko*, 1933-04-29, 3.

antzeko bat egitea: “neure asmua ez da Euzkadi geure Amaren edertasunak azaltzia”, diosku kronika-sortaren aurkezpean. Izan ere, Maiteren ustetan, lan hori idazle askok maisuki egina zeukaten ordurako; eta, gainera, mungiarrak apalkiro eta zintzoro aitortzen digunez, berak egin zezakeen baino egokiago.

Maitek muinera heldu nahi du. Zelanbait esan, orduko *Euzkadiren* arimaz jardun: “Euzkadi-azalatzaz barik, Euzkadi goguatuz idaztia gauza biarrekuagua dalako”. Berak abertzaletasuna dauka, batez ere, gogoan. Errepublika garaiko lehenengo urteetan errime sendotu da sentimendu abertzalea, nahiz eta abiadura ez den berbera Euskal Herriko eskualde guztietan. Leku batzuetan, lur ongarritu eta aberatsa aurkitu du abertzaletasun berriaren haziak. Beste batzuetan, ostera, harri arteko erne muinek ozta-ozta egiten dute gora. Horrengatik baloratuko du Maitek Orreagan, ikurrina eskuetan zuela, bidera irten zitzaizen emakume adoretzuaren egitada:

“¡Orreagatar aizatxoxo, aberkide kuttuna! Bizkaiko txoko onetatik dabidaltzu emakume bizkattar onek bere agurrik mattatijena, bere besarkadarik estubena, bere laztanik beruena! Zeu lez euzko-askatasunaren begira dau emakume au be eta geuk lez Euzkadi´rentzat dauz bere bijotzeko mattasun zintzoenak”⁵.

Kroniken azpтитulua ere esanguratsua da oso, gazte mungiarren asmoa ulertzeko: “Euzkadi´ta abertzaletasuna”. Ahul

⁵ Euzko Gaztediak argitaratutako gomutagarri-liburuxkan ere, badago une zirrargarri horri buruzko aipamen bat: “Atravesamos cerradas y espléndidas arboledas y a las ocho de la mañana ganamos el puerto de Ibañeta. Y es entonces cuando la emoción ha dado un brinco en nuestro pecho. Porque allí en el alto, el brazo de aquella joven emakume, Irigarai, levanta en salutación a nosotros y como una gran promesa para Euzkadi entera, la bandera de la Patria que flamea gozosa mostrando enlazadas en su fondo rojo la Santa Cruz de Cristo y la Cruz Santa de la Libertad...” (Euzko-Gastedia: *La Vuelta a Euzkadi (abril-mayo, 1933)*, Imprenta F. Zubiri y Comp., Bilbo, 1933, 23).

dakusa abertzaletasun hori Araban, eta bere ametsetako Euzkadi abertzale eta euskaldun horretara erakarri nahi zuen: “¡Araba gaxua! ¡Entzun, arren! Zatoz geure ikurrinpera; geure bijotzeko txingarrez osatuko dautzuguz erdelzalekerijaren leyez zeure bijotzian idegi dozuzan zauri ilkorrak”. Bidaia aurre-ra joan ahala, baina, harrera gero eta beroagoa topatuko dute bidaiari euskaldunek, baina ereintza aberkoia ez dute alde batera itxiko. Izan ere, bidaia turistikoa ez eze, *patriotikoa* ere bada: “Bide-ziar zabalkunde-ingi⁶ aberkoyak ugari erain daroaguz; ingijok euzkeraz ta pantzeraz idatzitta joyazan” diosku Maitek, Donibane Lohizuneko euskaldunak agurtu eta gero.

Julia Gabilondo *Maite* (1902-1994)

Julia Gabilondo Arruza-Zabala Bizkaiko Mungia herrian jaio zen, 1902ko urtarrilaren 29an. Gurasoak: aita, Joan Gabilondo Azurmendi medikua, gipuzkoarra (Zegama) zen, eta ama, Idoia Leonor Arruza-Zabala Etxaburu, bizkaitarra (Gueñes). Esan behar da, amaren aldetiko aitaita mungiarra zela, Bizkaiko Gueñesera ezkondu zena.

Julia (*Jule*) Gabilondo eta bere ahizpa Iñakek denda bat zuten Mungiako Trobika kalean eta bertatik ateratzen zuten euren bizimodua. Edozelan ere, azpimarratu behar da Jule gaztetatik liburu zaletu zela –Lauaxetaren eragina dagoke, beharbada, horretan guztian–, eta 1930ean *Euskal Esnalea* aldizkariak antolatutako literatur saria irabazi zuela⁷.

Horrek akuilatuta, errepublika-urteetan eta gerra-garaian, *Maite* (*Mate*) ezizenarekin, etengabe kolaboratu izan zuen orduko hedabide euskaldunetan, euskaraz beti ere. *Euzkadi*, *Eguna*, *Euzko*, *Ekin*, *Aberri*... egunkari-aldizkariak dira Julia Gabilondo *Maiteren* artikulua eta herri-kronikak aterpetu zi-

⁶ Ingi: *paper*.

⁷ Gabilondo, Julia: “¿Gizona ala emakumea? ¿Zein da kementsuagua?”, *Euskal Esnalea*, 1931, 326, 23-29 // *Euzkadi*, 1931-04-18, 5.

tuzten medio nagusiak. Maitek bizkaieraz idazten zuen beti, eta haren idazkeran –ohikoa zenez– orduko garbizaletasunaren ukituak nabariak dira: fonetismoak, neologismoak, aditz trinko bereziak... Edozelan ere, hizkuntza sendo, jator eta egokia da Maitek darabilena. Mungiar gazteak erabilitako gai nagusiei bagagozkie, honako ardatzon inguruan bilbatu daitezke haren lumak landutako alorrak: Mungia (herri-kronika laburrak), erlijioa, abertzaletasuna, familia, emakumea eta euskara.



*Julia Gabilondo Maite (1902-1994)*⁸

Julia Gabilondok politika arloan eginiko lana “Emakume Abertzale Batza”ren inguruan kokatu beharra daukagu, bertako kide aktiboa izan zen eta. Bere lanen amaieran, izenaren ondoan, *E.A.B.* ailea sarri ere sarri jartzen zuen Maitek, militantzia hori azpimarratzeko. Hizlari modura ere ibili zitzaigun

⁸ Atxaga, Mikel: *Emakume idazleak, Bidegileak* bilduma, 9, Eusko Jaurlaritza, 1997, 11.

gerra aurreko urteetan, eta, gehienetan, emakumearen gaineko gaiak jorratu zituen berbaldiotan. Kasuon ere, euskara hutsezko parte hartzeak izan ohi ziren Julia Gabilondorenak.

Bide beretik, Maite sarri ikusten dugu bere eskualdeko, Mungialdeko, ekimen kultural eta erlijiosoetan inplikaturata, eta ahalegin handiak egin zituen albo herrietako gazteak idazten hasieran, herri-kronikak-eta has zitezten. Esan dezakegu, kazetari-eskola txiki eta herrikoi bat antolatu zela haren inguruan.

Maiteren azken artikulua, “A! Geure jatorrija...”, *Euzkadi* egunkarian argitaratu zen Francoren tropak Bilbon sartu (1937-06-19) baino lau egun lehenago. Bezperetan, ekainaren 13an, argitaratu zen akabukoz euskara hutsezko *Eguna*; baina, egia esan, *Maiteren* azken artikulua *Egunan*, “Emakumiaren zoritxarra”¹⁰, apirilaren 25ekoa da; hain zuzen ere, Gernikako bonbaketa eta Lauaxetaren atxiloketa gertatu ziren momentukoa. Lauaxeta eta Maite, biak ala biak ezagutu zituen A. Zubikarai handiak lotura zuzena zekusan tragedia handi haren eta Maiteren mututzearen artean: “Nik esango neuke *Lauaxetaren* miñez edo naigabez mututu zala. Beintzat guk euki dogun berrogetak urtetako garizuma luzean, idazle lez baraua egin ebala esango neuke. Agertu ez behintzat”¹¹.


Bilbo nazionalen menpe jausten denean, Julia Gabilondo Santander aldera doa senide batzuekin, eta handik Ipar Euskal Herrira joko du. Hegoaldera bueltatzean, Gipuzkoan biziko da (Beasain, Lazkao, Donostia); baina, tamalez, haren idazluma isiltasunera baitaratu zen. Donostian hil zen 1994ko urtarrilaren 1ean, 91 urte zituela.

* * *

⁹ *Euzkadi*, 1937-06-15, 4.

¹⁰ *Eguna*, 1937-04-25, 6.

¹¹ Zubikarai, Augustin: “Nire gogoetak. Omenaldiko itzaldia (27-6-87)”, *Zer*, 111, 1987-iraila, 8-9.



“Euzkadiko I. itzulia”, 1933ko apirilaren 29tik maiatzaren 2ra

EUZKADI EGUNKARIKO KRONIKAK¹²

EUZKADI-ZIAR¹³

Euzkadi´ta abertzaletasuna

Euzkadi, geure Aberri kutuna ikertau ondoren aurkitzen naz. ¡Zein ederra dan! Bere itxasoaren oin zurijak, bere mendi-tontorren erpin lerdenak, bere zelayetako bedar ugari-

¹² Testuen ortografiari dagokionez, *í* > **-rr-** / **-r-** / **-r** aldaketa egin dugu: edefa > ederra, *abefkide* > aberkide, *ziar* > ziar; eta bustidurak gaurko ortografian eman ditugu: **ṭ** > **tt** (*mātasun* > mattasun, *jaṭāu* > jarrattu); eta **ḭ** > **ll** (*ḭlun* > illun / *joṛāla* > jorralla). Gainontzeko kasuetan, idazleak eginiko aukeretara makurtu izan gara. Inprenta-errakuntzaren bat-edo atzemanaz gero, ohar bidez adierazten da.

¹³ *Euzkadi*, 1933-05-11, 8.

jak, bere basetxe zuri atsedentsubak, neure begijak ikusguraz eta neure bijotza mattasun-egarriz itxi dabez. ¡Onen txairo, atsedengarri ta politta egin daben geure Euzkadi´ren Jaungoikua zelakua ete-da?

Baña neure asmua ezta Euzkadi geure Ama´ren edertasunak azaltzia. Ondo litzake, baña orañarte be amaika idazlek lan ori egin dabelako eta batez-bere Euzkadi-azalatzaz barik, Euzkadi goguatgaz idaztia gauza biarrekuagua dalako. –Euzkadi ta abertzaletasuna– ixenaz, neure Euzkadi-ziar ibilketa onek agertu daustana, berrargertuko dautzut, ene aberkide eta irakurle mattia.

I

Jorralla´ren 29´gna zan. Euzkadi batetik-bestera ikertu gura gindun euzkuak agurtuten, goxeko saspiretarako, eundaka aberkide asko ziran. Eguzkijak bere laztanik bero ta samurrenak geuretzat ebazan. Bijotzak atsedengurari gozoz kiki-kilika gebazala, batzuben gora, askoren agurrak eta txistubaren eresi bizkorraren laztanetan, urten geban 303 aberkidek. Txistularija Zubiri´tar Jon abertzale zintzua giñun. Zeuretzat, Jon, neure lenengo eta zorijon-agurrik bijotzetikubena. ¡Amaikatxu lan egin dozu geure euzko-dantzen-alde! Bidaiaziar ziran etxe ta uri guztijetan arrera gozoz artu ta agurtuten gindubezan.

Yurre´n, abertzale-talde aundijak, txistuba ta euzko-ikurriña buru ebezala, urten euskuben.

Otxandijo´n amaikagarren tarranta, ondarrutar ta durangarrak ekarzan tarranta geitu jakun.

GAZTEIZ. Amarretan eldu gintzan Arabako Uri-burura. Ordu erdi bertoko abertzale errimiak agurtu eta uri politta ikustateko. Gozotegi baten zaldun batzukaz alkarrizketa sortu dogu. Gelduta lez ziran geure euzko-abertzaletasuna ikustian. Lenengoz eguzkijaren argija ikusten dabenaren antzera, zal-

dun areik be, lo-zorrofik urtenda lez, arrituta begirutzen dauskue. Eurok, esan neban neure kolkorako, eurok dira aurki, ibilketa gozo onetan geureganatu doguzan lenengo euzkotarrak.

AGURAIN. Baserri batzuk igaro ondoren Agurain erritxuban jatzi gara; biztanliak lugiñak dira; geu agurtuteko begira daukaguz aguraindar begikuak; berton iru ordu lauren egin ta Nabarra´n sartu gara Burunda-bide. Lur-atal ikusgarrija: mendi-tontor errimiak, euzkel-atala.

OLAZAGUTIA-ALTZATSUA. Araba´ko errijetan eta Nabarra´ko erritxu bijotan ezagun dira pizti atzeritarren aginkada gordiñak. ¡Araba gaxua! Gazteiz ta ingurubetako zeure anaien diadarretara zelan etzara itxartzen? Eztozuz ikusten zeure odol-semiak, zeu askatu guran lanian? ¡Araba gaxua! Zeuretzat ixango dira neure bijotzeko mattasunik beruenak geure Ama Aberrija´ren ezaupidetik asaotuta¹⁴ zabilzalako. Zelan mattatu gura dozu, ezagutu barik? ¡Araba gaxua! ¡Entzun, arren! Zatoz geure ikurrinpera; geure bijotzeko txingarrez osatuko dautzuguz erdelzalekerijaren leyez zeure bijotzian idegi dozuzan zauri ilkorrak. Ezaguera ta mattasun-gosez bixi zara. Zatoz; geuk aberastuko dautzuguz zeure adimen-bijotzak.

ITURMENDI. Urbasa senduaren oñetako baserritxua. Bere espanak iñoz laztan lixunez zikindu bako umiak bidera ta abots garratzez ¡Gora Euzkadi azkatuta! didar osasuntzuz agurtu gattuz. Erdelzalekeriz ta euzko-jakingeriz asetuta dan zokondo aretara, Jaunak bidaldu daben bere Gotzontxu bat iruditu jatan umetxuba. ¡Gora! irrintzitsuz erantzunaz, pozez txalotu gendun euzko-seme jayua.

BAKAIKOA. Erritxu au bide, Arakil´go aran begiko-txairuan sartu gintzan. Araneko erritxu guztijetan goraz ta abegi mattakor anatarrez artzen gabez. Uarte-Arakil igarotian, geure

¹⁴ Asaotuta: *urrunduta*.

begijak Aralar-mendi-tontorrian, Euzkadi jagola lez, Mikel Gongotzónen txaunotxuaz¹⁵ jo eben. Geure gogo-barrene-tik eskari onek urten eban: Euzkadi gaxuaren Zaindari gottarra, ausi geure arerijuakaz lotuta gaukazan katiak.

Erritxu batzuk igaro ta bere solo landubak baba barriz apainduta, axia baba-usain bakanez usaindutako ibar ikusgarri-ederrian sartu gara.

(Darraike)¹⁶



Autobusak, Bidebarrieta kalean, itzulia hasi aurretxoan¹⁷

¹⁵ Txauno: *kaperá*.

¹⁶ MATTE / E. A. B. / Mungia, 6-V-33 [Originalean E.B.B.].

¹⁷ *La Vuelta a Euzkadi (abril-mayo, 1933)*, 12 (Argazkia: Jemein).

EUKADI-ZIAR¹⁸

Euzkadi´ta abertzaletasuna

II

IRUÑA. Geure sarrera uri antxiñako onetara, garaikunde-sarrera da. Abertzaletasun-axe osasungarriak inguratu gendubezan; jeltzale-aldra ugarijak euren agur mattakorrez geure bijotz-atiak zabal-zabal itxi ebezan. Euzko-anattasuna, ixan be, zein atsedengarrija dan! Bazkal-ostian Euzko-gaztediratu gintzazan; aldi atsedeen-pozgarrija bertan emon gendubena. Napar gazte batekin jardun geban abertzaletasunaren aurrerapentatzaz; eta agirijan iminten dauku Nabarra´ko arerijuak senduena ta biurrijena karlatarra daben arren, euzko-abertzaletasuna egunian baño egunian ugarijagua dala eta lasterrera berau ixango dala bijotz naparraren mattia.

Ezin ukatu, ba, ene irakurlia, Nabarra´k entzun dabela euzko-odolaren deya, eta dei orri mattasunez erantzuten dau-tsala.

ERRO-ARANA. Billaba, Uarte, Olloki ta abar igaro ondoren, Erro-aranera eldu gara. Zugatzaz jantzittako lurralde txairo-ikusgarrija. Arrera mattakorrez artzen gattubez¹⁹ Errotarrak. Pozkarrija benetan euzko-gogo zintzoarentzat. Eta aldatz izugarri ta bira bildurgarriz inguratuta dan Auñamendi ikaragarrija igonda, Auritz (Burguete) uri polit-t[x]lukunera sartzen gara. Erri gutzijaren agurrak artuta, aurrera jarratten dogu.

ORREAGA. Geure gurutz bidun ikurrin argija eskuban da²⁰, agurtzen gauz emakume orreagatar lirain batek. Orduerdiko geldi-unia. Geure ezpatadantzarriak pelota-tokijan geure dantza errimiak dantzatu ondoren, jaupaltxaun edo

¹⁸ *Euzkadi*, 1933-05-12, 8.

¹⁹ Gattubez: *gaitue* / *gaituzte*.

²⁰ Dauala?

colegiatia ikertzera juan gintzan. Elexa ospetsubaren edergarri ta gomutagarriak bertako kanonigo españatar edo españazale batek azaltzen dauskuz. Orreaga´ko Miren Andera´ren oñetan Agur Erregiña abestuten dogu. Kanoniguak iñuanez abintza²¹ antxiñakua ei-da. Aingerua´k donokitik²² jatzi ta orreagatarrai irakatsi eutsela lenengoz Agur Erregiña otoya. Goguan dot gaur be orreagatar emakume lirañak egin euskun agur bijotzetiko-mattatija. Irudimenian jositta daruat bere esku zurijetan geure ikurrin deuna ebala, egin euskun agurra. Ezin dau nire idazkortzak azaldu emakume bizkor arek, tximist arintasunez tontortxu batera igon eta bertatik ikurriñaren onetsijak bidaldubaz, neure gogoaren barren-barrenian idegi eban esaneziñiko zaurija. Geure Aberri lotuaren askatasun-egun argija urrian zala iragarteko zugatzartian sorturiko lamiña ikusgarrija irudijan. Eta neure barru-dardaria jasan eziñik, negar-malko samurrak jo eben neure begijetara; neure bijotza asaskauaz, Nabarra´k besuak zabal-zabal da euzko-abertzaletasun gururtza besarkatzeko gertu zala iñosten negar-malko gozatsubak.

¡Orreagatar aizatxo, aberkide kuttuna! Bizkai´ko txoko onetatik dabaltsu²³ emakume bizkattar onek bere agurrik mattatijena, bere besarkadarik estubena, bere laztanik berue-na! Zeu lez euzko-azkatasunaren begira dau²⁴ emakume au be eta zeuk lez Euzkadi´rentzat dauz bere bijotzeko mattasun zintzoenak.

Luzaide (Valcarlos) Benabarra´ko mugan gagoz.

ARNEGI. Euzkotartasunik-ezak eta aginttari ankerren gurari gosetijak geure Aberri mattia erdibittu egin eben. Jagi, ba, eta Aduana edo mugia igaro biar dogu pantzetarren lurraldian

²¹ Abintza: *agindua*.

²² Donoki: *zeru*.

²³ Dabaltsu: *bialtzen deutsu*.

²⁴ -ren begira: *-ren zain > eusko askatasunaren zain dago*.

sartzeko. Karabiñeruak astiz ebiltzala-ta, aldija geunkala-ta, an-or-emen jolasten ziran umetxubai dettu ta gozoki batzuk emonaz: “Emon, emon, emon, geuria da-ta, geuria da-ta...” abesti aberkoya irakasten dautsiet, eta pozez entzun neban, bijaramonian igaro ziran jeltzaliai orruka abestitxu ori abestu eutsala²⁵ Arnegitar umetxubak. An geratu da euzko-azija. Elexa ikertau, euzko-dantzaldija egin, adizkide zintzo ta euzkotar jauparija²⁶ agurtu eta Garazi´runtz urten gintzan.

(Darraike)²⁷



(Foto Martínez Zarabeitia)

La

segunda etapa

*Orreagan, emakume abertzale batek ikurrinaz agurtzen ditu euskal bidaiariak*²⁸

²⁵ Badirudi *eutseela* (*zietela*) aditz laguntzailea eskatzen duela esaldiak: *umeak* (nork / haiek) - *jeltzaleai* (nori / haiei) - *abestia* (zer / hura).

²⁶ Jaupari: *abade*.

²⁷ MATTE / E. A. B. / Mungia 7´an.

²⁸ *La Vuelta a Euzkadi (abril-mayo, 1933)*, 21 (Argazkia: Martínez Zarabeitia). Maitek beren-beregi aipatzen du emakume adoretzu hori bigarren kronika honetan.

EUZKADI-ZIAR²⁹

Euzkadi´ta abertzaletasuna

III

GARAZI. Illun abarrian erdu gintzan (San Jean Pied de Port) Benabarra´ko Uriburura. Goxeko eleiz-bearkunak ertxa-donan³⁰ bete ondoren, goxaldu ta Luzaide ta Auritz´en gaba egitten lotu ziran aberkideak geuganatu-artian, Uriburu eder-antxiñakua ikusten emoten dogu astija. Eurok eldutian, geure artian abespatza eraldu ta Garate´tar Andoni´ren zuzentzaz arako abestaldi gozua emon gendun. Atsegiñez entzun eben geure abestaldija garazitarrak. Gero ezpatadantzea dantzatu ondoren, geure bijotzak garazitarraren agur mattakor-gozoz eztituta, aurrera jarratten dogu.

DONOZARRE-LAKARRA. Uste bako geldiketa geuria erri onetan. Emakume alargun baten berrezkontza zala-ta, gixon ta emakume-aldra galanta jantzi bikañez jantzitta, apaingi bakanez apainduta, aurretik eresbatza-ta idoro genduzan. Barrerarija zan arren be, ikusgarrija be bai. Emakume alargunaren taldian joyan bertzolarietatiko batek, bere euzkera gozoko bertzo onesten gattuz; guk ordañez, gogoz txalotuten dogu.

LIXARRA. Astiro-astiro Askitz´ko aldatz gogorra igon ondoren, tximista lez, jasten gara Lixarra´ra (Mauleon). Erri osua itxadoten dogu. Bazkalaurretik, erritarrai atse-atse ixan jakon ezpatadantzea egin eta Bidegain-jatetxera batu gintzan.

Arratsaldeko iru ta laurenetan giro ederrez, Lourdes´eruntz urten gintzan. Euzkadi Parantze´gandik banantzen daben mugara eltzian, Atarratze´n³¹ (Tardest) errittar gutzijak begira geunkazan erri-zelayan; bertan zan andera euzkotar zintzoak

²⁹ *Euzkadi*, 1933-05-20, 8.

³⁰ Ertxadon: *parrokia*.

³¹ Originalean: Atafatze´en.

alditxu baten bertan lotzeko arren dagisku, baña geure zuzendarijai ezteritxe-ta, geure tamalez aurrera goyaz. Geroago jakin gendun geure ostetik etorzan tarrantak Atarrantze'n lotu ta pozez ikustatu ebezela euren jantza zuberotarrak. Euzko-atarrantzetarrak agertu euskun mattasuna ikustean, neure bijotz-barruban atsegintasun-laztan gozuak nabaitu neuzan. Euzkotarrak euzko anayarentzat bijotzian daben mattasun-itturri ugarija da, esan neban neure kautan.

LOURDES. Oloron³² eta Pau uri andijak igaro ta Lourdes'en sartzen gara. Sartziaz batera zaparrada-trumoitsuak euri ugariz busti eben lurra. Jatetxietara joan atsedendu apur bat ta attaren baten apaldu egitten dogu. Gabeko bederazieta-rako, dau iragarritta gabeko zuzi-ibildeuna; amabi-milla-inguru gintzazan ibildeunian, an ebazan Euzkadi'k bere ordezkarijak.

Gabeko amaikak dira; Euzko-Alderdi-Jeltzalia'k Lourdes'ko Ama Neskutza'ri emongo dautsan ezko lodi (cirio)'aren eskintza, egitteko gara. Ezko lodijak, eskintza, bost eletan jero-yan. Euzkeraz, gazteleraz, pantzeraz, ingeleraz ta dotxeraz; gauza ikaragarrija benetan. Europa osoari deadarrez euzkotarren Aberrija dan "Erri" bat ludijan dala esango daben ezko lodija.

Eskintza ondoren, Uriarte'tar Eustaki jaupari jaun mattati ta abetzale zintzoak, geure gogo-bijotzak dar-daraz ebezan itzez, berbaldi labur beroa egin euskun. Agurtza otoi egin eta Iñaki Deun'aren ereserkija abestuta ogeratu gintzan.

(Jarraitzeko)³³

³² Originalean: Oloren.

³³ MATTE / E. A. B. / Mungia, 16an.



Euskal bidaiariak Lourdesen³⁴

EUZKADI-ZIAR³⁵ Abertzaletasuna ta Euzkadi

IV

LOURDES. Orrilla´ren³⁶ lenengo eguna da. Ixadijak dagerzan³⁷ apaingi ugarijak Miren Neskutza´ren illari edertasun,

³⁴ *La Vuelta a Euzkadi (abril-mayo, 1933)*, 34 (Argazkia: Arregi).

³⁵ *Euzkadi*, 1933-05-25, 8.

³⁶ Originalean: Odila´ren (Orril: *maiatz*)

³⁷ Dagerzan: *agertzen dituen*.

txairotasun ta gozotasun bakanak damotsoz. Ortzearen garbittasun urdiñak, baso-zelayetako lora-bedarren polittasun, usain ta ugarittasunak, axea beraren gozotasun atsegingarriak eta batez bere eguzki dizdiratsubaren esku zabaltasun jorriak ixadija ikusgarrittasun-bitxiz apaintzen eben. ¡Benetako egun udabarrija, egun alai-garbija! Bernardeta´ri artzuluan agerturiko Amea´ren irudija bera be, egun atako ixadijaren magal ederrian ixakera bedegarrez jazten zan.

Lenengo belaunbikotu, ba, bere oñetan eta beretzat ixan ziran geure bijotzeko mattasun-izpijak. Euzkadi argi zerutarrez argittuko daben azkatasun-eguzkija len-bait-len biztu dagijala, bijotzeko zokondotik sutsu arren egin geuntson.

Zortziterdijetan Uriarte jaupari jauna´k "Euzkadi-alde" me-sea egin eban. Mesa bittartean abesti polit-samurrak abestu gebazan. Oraindiño neure belarrijetan daroyat abesti arrentsu onen oyara:

¡Estuntzeak auzi³⁸,
Itxubak argittu,
Kendu guri gatxak,
Ona ekarguzu!

Mattasun-loraz geure bijotzak usaindu ta euzko-guztijok erdu gintzan jaunartzera. ¡Ikuskizun samurra benetan, ene irakurlia! ¡Ikuskizun eder-atsegingarrija, mattasun-bardiñez bijotzak zaurittuta geroyezan euzko-anayak, mattasun orren sorburuba dan Jauna bijotz-seaska bigunetan artzen urreratzia! Otoi bat ixan zan, noski, bertan gintzan euzkoen bijotz-espanetatik urten zan otoyara: ¡Jauna, Euzkadi azkatu ta mattasunkatez zeure Bijotzera lotu!

³⁸ Estuntzeak auzi: *kateak bautsi*.

Jaunartze-ostian ene Egillia´ri euzkel-otoiketako idaztija irakurriaz, eskarrak emoten niñarduala, zer ete-zan ikusi-guran, sorbalda-ganetik neuri adi-adi zaldun bat zala oartu nintzan.

Zein ele da irakurten dozun ori? Ittandu eustan pantzeraz. Euzkerea, erantzun neutsan. Bat-batera argijak dizdiratu eban bere aurpegija eta mattekiro: jarrattu –erantzun eustan– zeure ele ederrian irakurten. Gixon a nor ete-zan? Ez dakit.

Eleizkixun samur-mattati-aiztugia “Agur Josu´ren Ama” abestijagaz amattu zan. ¡Ze aldi alai-gozuak igazten diran geure donokiko Ama´ren magalpe beroan!

¡Lourdes´ko Ama Neskutza, Zeu´ganako mattasun-zauriz zaurittu euzko-bijotz gustijak! ixan zan neure azkenengo arre-na.

Goxeko amarderdijetan sartu tarrantetan eta etxera osteria asi geban. Giroa atsedengarrija; bitxabalak zuzen ta lauak. Begijen aurrean geroyazan Pirineos mendi-lerroa edurrezko zapi-dizdiratzuz estalitta. Oloron itxi-tta barriro Euzkadi geure Ama´ren magal amattarrenan sartzan gara. Arrera mattakor-bijotzetikua Zuberoa´ko uriburutarrak egin euskue-na. Bazkaldu ta arratsaldeko iruterdijetan Bayona´rako bidea artzen dogu.

KANBO. Sartu Laburdi´n eta Kanbo uri polit-begikura eldu-tian, jaupari gaste batek aurreratu bitxabalean eta ¡Gora Euzkadi azkatuta! bulartsubak agurtzen gattuz. Guztijak, abots bat egin eta geure bularrak damoskuzan inddarrez: ¡Gora! eran-tzuten dautsagu.

(Jarraitzeko)³⁹

³⁹ MATTE / E. A. B. / Mungia, 20´an.



Bidaiarien Abesbatza Uztaritzeko frontoian abesten. Goian: E. Blazy⁴⁰, Uztaritzeko parrokoaren berbaldia⁴¹

EUZKADI-ZIAR⁴² **Euzkadi ta abertzaletasuna**

[V]⁴³

USTARITZ. Euzkadi´ra osterea egin dogun abertzaliok aztuko eztogun erritxu txairua. Uri-sarreran begira daukaguz erritar geyenak, endore (alkatia), Euzkal-Biltzarra´ko Zuzenda-

⁴⁰ Edmond Blazy: apaiz eta idazle lapurtarra. Baionako *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileetarikoa bat. Aldizkariaren lehen zuzendaria (1921). *Euzkal Pilota* elkartearen lehendakaria. 1929tik hil arte (1941), Uztaritze herriko erretorea izan zen.

⁴¹ *La Vuelta a Euzkadi (abril-mayo, 1933)*, 43 (Argazkia: Arregi).

⁴² *Euzkadi*, 1933-05-27, 8.

⁴³ Originalean ez da zenbakirik agertzen, baina [V] dagokio.

rija, Blazy, erriko txauburuba, jaupari-ikastegiko Artekarija eta Lafitte abadea. Alkarri agur bijotzetiko mattatija egin ondoren, guztijok erriko pelota-toki ederrera goyaz. Pelota-tokiburuban eta geu zelan txalotu ta txeratu ez ekijala, axiaren mosu bigunez laztanduta, artega ta urduri zan geure Jelikurrin ikusgarrija. Pelota-tokija oztez asetuta zala euzko-jai ospetsubari asijera emon geuntsan. Erriko txauburubak⁴⁴ euzkera gozoz on-etorrija emon euskun, odolez anayak gintzan euzko gustijoi. Emengo euzkotarrok –iñoskun– urdurittasunez darraiguz zebe azkatasun-egarrija asetuteko egin darozubezan pizkunde-egikun aberkoyak. Zebe poz-alaittasunak poztu egitten gauz; zebe atsekabe-miñak atsekabetu ta minu egitten gauz. Jarrattu adorez ta kemenez zebe gurutz bidun ikurrin deunak darakutzuben⁴⁵ bide neketsuba, ele, ekan du, edesti ta odolez anayak garan euzko-guztijok len-bait-len garaipe abotsez azkatasun-ereserki bulartsuba abestu al dagigun. ¡Gora Euzkadi! bulartsuba ixan zan txauburu abertzaliaren azkenengo deadar aberkoya.

Garate´tar Andoni´ren zuzentzaz gixon ta emakumez eralduriko abespatzak abesti aberkoi-polittak ta ezpatadantzarijak geure dantzak egiñaz amattu zan iño aztuko eztodan ustarriztarri egiñiriko geure ikerraldija. Ugari egin geban zabalkunde aberkoya; lur onean datzan azi onaren antzera, geure zabalkunde azi aberkoyak igali ta emaitz ugari-gozoak, emongo dabezan ezpairik ezin eduki gegike⁴⁶.

Ustaritz´ek dabezan lako aginttarijak dabezan urijen zori-jontsubak!

Eta azkenez ertxadonan ”Agur Josu´ren Ama” abestu ondoren gustijen agur ta goraz inguratuta, erriko atzera-aurrera erabagitteko Areitz onespian egitten ebezan “Biltzarra´katik” os-

⁴⁴ Originallean: txauburuban.

⁴⁵ Darakutzuben: *erakusten deutsuen / erakusten dizuen*.

⁴⁶ Gegike: *gengike, geinke / genezake*.

petsuba zan Ustaritz uri politta zabartu, itxi gendun. ¡Gora Ustaritz!

BAYONA. Apalordurako erdu gintzan. Antxe jakin geban Larrinaga⁷ko espetxian aurkitzen ziran abertzale bizkattarrak [...] ⁴⁷. Eta beste barik argittu dau geure ibillaldiko laugarren eta azkenengo egunak.

Goxeko saspitterdijetan gotertxan edo katedralian jaupea entzun eta Euzko-Erakustegi edo Museoa ta urija dikerguz ⁴⁸. Eta eguberdirako, Euzkadi⁷ko arrantz-kai entzutetsuba dan Donibane Loitzun (Saint Jean de Luz) urira erduten gara. Kalejira alayan urija igaro ondoren, erriko zelayan guztijok bildu ta geure dantzarijak ezpatadantza egitten dabe, ostetza aundijaren aurrian. Berialaxe Hotel de la Poste jatetxe aundijan bertoko agintarijakaz batu ta bazkal-ostian, Uriarte jaupari Jauna⁷k eta Donibane⁷ko txauburubak, guztioen txaloz eskartuten dautsoguzan berbaldijak egitten dabez. Barriro kalejiran errija igaro ta erriko zelaira erdutian euzko-jantzaz jolas-tuten gara. Abespatzak euzkel-abesti gozuak abestu ta guztijen agur mattatijak geure belarrijak atseginduten ebezela, agur bioztarrak egiñaz urrunduten gara.

Bide-ziar zabalkunde-ingi aberkoyak ugari erain daroaguz; ingijok euzkeraz ta pantzeraz idatzitta joyazan.

(Darraike) ⁴⁹

⁴⁷ Badirudi zatiren bat-edo falta zaiola esaldiari. Hurrengo eguneko *Euzkadi* egunkarian argazki deigarri bat argitaratu zen lehenengo orrian, honako testutxo honekin hornituta: “Los patriotas que en gran número visitan a nuestros presos y acuden a llevarles alimento y testimonio de adhesión, formando cola para pasar al locutorio de la prisión de Larrinaga” (*Euzkadi*, 1933-05-02, 1).

⁴⁸ Dikerguz: *ikertzen ditugu* / *bisitatzen ditugu*.

⁴⁹ MATTE / E. A. B.



“3” autobuseko bidaiari guztiak⁵⁰

EUZKADI-ZIAR⁵¹ Euzkadi ta Abertzaletasuna⁵²

VI⁵³

Urantzu´n euzkotar anayok bananduten gauzan muga dongetsija iraduz⁵⁴ igaro ta Gipuzkoa´ko lur-atal alayan sartzen gara. Aurrerantzian Bilbao´ratu artian uri, erri ta baserri guztijetan arrera mattakor bijotzetikuak egitten dauskubez. Donostia´ra erdutian Euzko-Etxea´ra goyaz; Orio, Zarautz, Getaria ta Zumaya erriyak euren bijotz aberkoyak mattasun-edari gozoz asetua urtetan dauskube bidera. Gure izpasterraren ikuskixunaren edertasun ta txairotasuna! Arratsaldia eguzkija-

⁵⁰ *La Vuelta a Euzkadi (abril-mayo, 1933)*, 6 (Argazkia: Beltrán).

⁵¹ *Euzkadi*, 1933-05-31, 8.

⁵² Kasuon, *Abertzaletasuna* hitza letra larriz hasten da.

⁵³ Originalean, VII zenbakia agertuten den arren, VI. atala genuke honako hau.

⁵⁴ Iraduz: *prisaz, arineketan*.

ren laguntasun beroaz mendi-osterantz geldiro joyan ortzeak, bere mattia galdu daben bijotzaren antzera ittun-oyal urdiña baltzez margotuten iñarduban⁵⁵; udabarri giro gentzatsubaren⁵⁶ magal baretsuan, egunez lana sendo egin da illuntzijan nekatuta aurkitzen dan ama maratzaren magal mattatijan etzanda dan seintxu ederra iruditten yatan. ¡Nok leban, niñuan ene kautan, olerkari bikañaren idazkortz izpitsuba! Nor⁵⁷ litzan margolari ziatza, arratsalde gozo onen mattasun-zertzelada guztijak batu ta abestu ta margotu al ixateko! ¡Ederra, zoragarrija zara, Euzkadi, ene amatxo bakarra! ¡Zeure itxaso altsuak bere bijotzean daroyan indarrez zeure seme leyalak indartuten diranian, ezta ixango ludijan, gitxi garan arren, zeure azkatasun-eguzki disdiratsuba itzali al ixango daben Laterri andikeritsuberik! Gaur, baña, ederra ta politta zalarik, ezta ludijon, ene ama, zeu baxen Aberri zoritxardunik!

Deba, Elgoibar ta Maltzaga´n aneika⁵⁸ abertzale[k] bijotzez agurtuten gauz; bide ertz bijak abertzalez eralduriko orma biziz orniduta idoroten doguz.

Eibar´en sarkeran eta txapelokerren etxaurrian, salata guzurrezkua bide zalako, geure ibilketa lotu biar ixan gendun. ¡Salatarijak lurperatu ta noz arnasatu al ixango dozu bular osoz, Euzkadi, ene Ama! Eta Eibar´ko gastedi abertzaliak adorez jagoten gauz geldirik garan urian.

Gastetxubak eurak be urreratu ta itz adoretsuz kementzen gauz. Or amar urte inguruko mutikotxua, bere barruko poza eztali eziñik, baterik bestera gustijan arnasa emoten diñardu; txikerra da-ta gustijak ikusi egijen oin-puntetan jarri-ta abots zoli-adoretsuz iñoskun: ¡Ez beldurrik ixan! ¡Nasai juan, zuek triunfauko dozue-ta! Zu baxen seme errimiak dabezan aberri-

⁵⁵ Iñarduban: *inarduan / zibarduen*.

⁵⁶ Gentzatsu: *baketsu*.

⁵⁷ Originalean: Nok.

⁵⁸ Aneika: *milaka*.

jak laster auziko dauz joputasun-kate nazkagarriak! Eta, zu, Eibar, sozialismo laterritsubaren erpepian ittoten aurkitten zarran euzko-urija, adoretu, arerijuak bijotzean daroye erijotzarantza luputsuba-ta! Eibartarrak anattasunez agurtu ta aurrera darraigu. Bilbo´ rartian uri gustijetan zizirikuak jaurtiaz, daguzkuben txera ta agurra odol-bardiñez biztuta diran sanak dabezan anayenak ixan bear.

Gabeko amaika ´erdijak inguruban sartzen gara Bilbao´ra. Bidebarrieta txaidea euzko-abertzalez asetuta dago. Guztijen txalo, gora ta agur bijotzetikoz laztanduta amaitzen da geure Euzkadi-ostera zoragarrija.

Geure bijotz-txokuan Euzkadi´rentzat jagoten geban mattasun-su zerutarrak gartasun barrija artu dau. Geure ibillaldi luzean Ama´ren oyu ta deadar barrutarrakoyar negartsuba itxi dabe. Euzkadi´ren azkatasun-egarrija ziatzago txastatu dogu eta egarri au asetuteko lana gogor ta sendo egitteko zin egin dogu Oteundi´ko⁵⁹ Josu geure birrerosle ta azkatzallea´ren aurrean.

Zorijonak, ene zorijonik barrutarrenak Euzkadi-ostera-txango onen eraltzalliai eta batez-bere neure zorijon-agurrik zintzubena bere gogo ta bixi izan dan Goikoetxea´tar Nestor abertzale benetakuari.

MATTE / E. A. B. / Mungia⁶⁰

⁵⁹ Oteundi: *ogi + deun > oteun* (ogi santua). *Oteun + -di > Otendui* (*sagrarioa*) Neologismoa. [oteun (Bera app., Zam Voc). "Sagrada hostia" Zam Voc. (*Orotariko Euskal Hiztegia*: <http://www.euskaltzaindia.net>)].

⁶⁰ Handik urtebetera, honako hau idatzi zuen Maitek: "Goguan ondo irarrita dogu igazko Euzkadi-ostera zoragarrija! Egun atsegingarriak igaro gebazan geure Euzkadi-ziarko ibiltaldijan! Aurten etxian geratu biarko" ("Mungia", *Euzko*, 1934-04-28, 4).



Euzkadi-osterako gomutaki-liburud⁶¹

Berebitez berriro ere: Berlindik Euskal Herrira Orriotan irakurri ditugun kronikak argitaratu ziren garaitsuan, hots, 1933ko maiatzaren 11tik 31ra, Marianne Breslauer (Berlin, 1909 - Zurich, 2011) argazkilaria⁶² Euskal Herrirantz abiatzen da, Annemarie Schwarzenbach (Zurich, 1908 - Selg, 1942) antropologo eta idazlea auto gidari eta bidelagun zeramala.

Bidaia, 1933ko maiatzaren 14an hasi zen, eta aste biko iraupena izan zuen. Gironan hasi zuten txangoa, eta Bartzelona, Andorra eta Huescatik pasatu ondoren Euskal Herrian sartu ziren, Iruñean, Donostian eta Loiolan pausaldiak eginez.

⁶¹ Sabino Arana Fundazioa.

⁶² “Marianne Breslauer (Berlín, 1909 – Zurich, 2001) perteneció a una generación de mujeres fotógrafas que supieron aprovechar las libertades que les brindó la República de Weimar. Su obra es un ejemplo notable de la denominada «nueva fotografía» y se encuentra actualmente en importantes colecciones, amén de haberse mostrado en varias exposiciones individuales” (<http://museunacional.cat/es/marianne-breslauer-fotografias-1927-1938>).

Edozelan ere, denborarik gehien Iruñean eman zuten; izan ere, Hemingway-ren *Fiesta* liburuaren eragina⁶³ handi ere handia izan zen neska bien baitan⁶⁴.

Aurtengo urtarrilaren 29ra arte, Bartzelonako Museu Nacional d'Art de Catalunya delakoan zabalik egon den erakusketan (“Marianne Breslauer, Fotografias 1927-1938”), Euskal Herrian ataratako hamahiru daude, hiru Iruñekoak⁶⁵, eta bosna Loiolakoak eta Donostiakoak. Gipuzkoako eta Nafarroako hiriburuak ia-ia memento berberean zapaldu zituzten Maitek eta Mariannek, bata euskalduna, bestea judu jatorriko alemandarra⁶⁶. Biak ala biak intolerantziak jazarriak. 1933ko apiril-maiatzetan euren bideak gurutzatu izan balira, seguru asko Maitek kontatuko zien Marianne eta Annemarie-ri Iruñea eta Donostia sanferminak eta hondartzak baino gehiago direla,

⁶³ Kurt Tucholsky idazlearen *Ein Pyräneeubuch (Un libro de los Pirineos)* liburuaren eragina ere aipatzen da sarri.

⁶⁴ “Donde más tiempo estuvieron fue en Pamplona, influenciadas por el éxito de la novela *Fiesta* de Hemingway, traducida al alemán en 1928. Como dice Breslauer en sus memorias, querían *respirar la atmósfera que había descrito Hemingway de manera tan impresionante*” (<http://blog.museunacional.cat/es/las-fotografias-de-marianne-breslauer-del-viaje-por-nuestro-pais-en-1933>).

⁶⁵ “*Hemingwaik deskribatu zuen atmosfera arnastu nabian* egin zuten bidaia, beraz. Baina Iruñea urte osoan izan daitekeen arren festa, maiatza ez da sanfermin, eta bertako argazki gutxi egin zuen Breslauerrek” (Galarraga, Aritz: “Bidaia zapuztu baten kontakizuna”, *Argia*, 2017-02-05, 39-40. or.).

⁶⁶ “El nazismo no solo acabó con la vida de miles de personas. También con la carrera profesional de jóvenes con talento que podrían haber continuado sus actividades artísticas si el régimen y la guerra no las hubiera truncado de forma brusca. Es lo que le ocurrió a Marianne Breslauer (Berlín, 1909-Zúrich, 2001), una joven de la alta burguesía de origen judío con formación fotográfica y gran sensibilidad para capturar instantes con su cámara que el ascenso del nazismo obligó a exiliarse y refugiarse con su familia en Suiza; una experiencia traumática que le hizo abandonar su cámara para siempre tras realizar apenas medio millar de instantáneas” (Crespo, Gloria: “Marianne Breslauer regresa a España”, *El País*, Babelia, 2016/11/03).

baita tarrant apal haietan zihoazen 303 bidaiari haien gogoe-
tan pil-pilean zegoena ere: aberri-mina, askatasun-irrika, ilu-
sioa, itxaropena...

Bibliografia

- Askoren artean: *Emakumeak, bitza eta bizitza*, BFA-EHU, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2012.
- Atxaga, Mikel: *Euskal Emakume Idazleak*, Bidegileak, 9, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1997.
- Crespo, Gloria: “Marianne Breslauer regresa a España”, *El País*, Babelia, 2016/11/03.
- Etxepare, Jean: *Beribilez*, Lasserre, Baiona, 1931.
- Euzko-Gastedija: *La Vuelta a Euzkadi (abril-mayo, 1933)*, Euzko-Gastedija (Juventud Vasca), Imprenta F. Zubiri y Comp., Bilbo, 1933.
- Euzko-Gastedija: *Segunda Vuelta a Euzkadi (abril-mayo, 1934)*, Euzko-Gastedija (Juventud Vasca), Bilbo, 1934.
- Gabilondo, Julia: “¿Gizona ala emakumea? ¿Zein da kemen-
tsuagua?”, *Euskal Esnalea*, 1931, 326, 23-29 // *Euzkadi*,
1931-04-18, 5.
- —: “EUZKADI-ZIAR. Euzkadi´ta abetzaletasuna (I)”, *Euzka-
di*, 1933-05-11, 8.
- —: “EUZKADI-ZIAR. Euzkadi´ta abertzaletasuna (II)”, *Euz-
kadi*, 1933-05-12, 8.
- —: “EUZKADI-ZIAR. Euzkadi´ta abertzaletasuna (III)”, *Euz-
kadi*, 1933-05-20, 8.
- —: “EUZKADI-ZIAR. Abertzaletasuna ta Euzkadi (IV)”, *Euz-
kadi*, 1933-05-25, 8.
- —: “EUZKADI-ZIAR. Euzkadi ta abertzaletasuna [V]”, *Euzka-
di*, 1933-05-27, 8.
- —: “EUZKADI-ZIAR. Euzkadi ta Abertzaletasuna (VI)”, *Euz-
kadi*, 1933-05-31, 8.

- —: “Emakumiaren zoritxarra”, *Eguna*, 1937-04-25, 2.
- —: “A! Geure jatorrija...”, *Euzkadi*, 1937-06-15, 4.
- Galarraga, Aritz: “Bidaia zapuztu baten kontakizuna”, *Argia*, 2017-02-05, 39-40.
- Larrañaga, Polikarpo: *Emakume Abertzale Batza: la mujer en el nacionalismo vasco*, Auñamendi, 121-122-123, Donostia, 1978.
- Ugalde, Mercedes: *Mujeres y nacionalismo vasco: génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*, EHU/UPV, Bilbo, 1993.
- Uruburu, Laura: *Emakume Abertzale Batza*, Bidegileak, 9, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1997.
- X.X.: “Euzkadi osterea”, *Euzko*, 1933-04-29, 3.
- —: “Euzkadi-osterako gomutakija”, *Euzko*, 1933-07-01, 1.
- Zubikarai, Augustin: “Nire gogoetak. Omenaldiko itzaldia (27-6-87)”, *Zer*, 111, 1987-iraila, 8-9.
- <http://museunacional.cat/es> (“Marianne Breslauer, Fotografias 1927-1938” erakusketaz).
- <http://blog.museunacional.cat/es> (“Marianne Breslauer, Fotografias 1927-1938” erakusketaz).
- <https://www.helveticarchives.ch/detail.aspx?ID=97081> (Marianne Breslauer eta Annemarie Schwarzenbach-ek eginiko argazkiak ikusteko).

Iñaki Sarriugarte